

¡AUR GAIÑOAK!



—¡Orra zer Jainkoak

Eraman diran

Nere maite polita

Neregandikan!

¡Nork daki len bezela

Nere onduan

Jostatzen baldin bada

Orain zeruan!—

Guraso batek seaska bati begiratuaz;
 Bere biotza antsi tartean dardaratuaz,
 Aditzen nizkan itz oyek arri kupiturikan
 Bere aurchoen far irri ura topa nairikan:
 —Ala zeguen seaska utsa gela batean
 Agerturikan gona chiki bat tapa tartean,
 Eta mai baten gañian berriz jostalluhoak
 Aurrak berekin atzo jostatzen izandakoak;
 Chori bat zeguen kayol batian goitik zintzilik
 Seaska utsa zeguen toki pare-paretik,
 Eta arren kantak edo negarrak ez dakit ziran
 Aurrarengana joan nai bezela kayoletikan.—
 Ontan gabaren illuntasuna dator gañera,
 Eche artako pen ura banatu nai bezela.
 ¡A! mundu ontan ote da arkitzen gauz oberikan
 Aur gaiño baten eriotz goiza bezin onikan!
 ¡Zer da bizitza! ¡zer da izatea urte askoan!
 ¡Gaitza! ¡samiña! gaizki izatea alkar ondoan!
 Guraso onak ¿zertako dira negar malkoak,
 Ez alditugu bear zeruan aingeruhoak?
 Au esan nuben ayen barrenak poztu nayian
 ¡Bañan alferrik! isiltasunaren erdian
 Ayengandikan beste gauzarik etzan aditzen
 Beren biotzak zekaten pena baizik sentitzen.

FRANZISKO LOPEZ.

